



Euskadiko Lehendakaria
El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abendua

Kanpoan bizi zaren euskaldun estimatua,

Gabonak eta Urte Berria ate joka ditugun honetan, 2019. urtearen balantzeak berriro ere erakutsi digu gure Diasporaren ahalmena, Euskal Herria beti bihotzean daramana eta **euskal nortasuna eta izatea** mundu osoan zabaltzen laguntzen duena.

Aurten, irailaren 8an, Euskal Diasporaren Egunaren bigarren edizioa ospatu dugu, eta Kanpoan diren Euskal Gizataldeen VII. Mundu Batzarra antolatu dugu. **“Saregintzan”** lema bidez, gure Diasporaren ezaugarri nagusia erakutsi diogu euskal gizarteari: Herri bezala harrotasunez betetzen gaituen eta bere konpromisoaz laguntzen digun Komunitate globala.

Europa migrazio krisi betean dago, eta “kontinente zaharreko” herrialde guztiok, handi nahiz txiki, abegi onez hartu behar ditugu –ez etsai izango balira bezala– gurera seme-alabentzat bizimodu hobeago baten bila datozen pertsonak.

Historian zehar, munduko herrialde askok **harrera beroa** egin diote euskal emigrazioari, estutasunak pasatu baditu ere. Ez dezagun ahaztu Pierre Lhandek 1910ean zihoena: “Guztiok dugu osabaren bat Ameriketara”. Gaur egun baditugu ere kanpora doazen “seme-alabak edo ilobak”, Europara edo Asiara, gure mugetatik kanpoko bizitza ezagutzera.

Hori guztia hala izanik, esan beharra dago ez garela bihozgabeak eta kezka ikusten dugula Amerikako hainbat herrialdetako milaka herritarrek bizi duten egoera tamalgarria.

Humanismoa eta elkartasuna gure balioen artean daude, eta horregatik gaude migrazioaren desafio globalari erantzun bateratu eta positibo bat ematearen alde, aintzat harturik **“jaso nahi genukeena eskaintzeko”** konpromisoa.

Etorkizunari begira, lehen urratsak egiten ari gara **Euskal Diasporaren Artxiboa** sortzeko lanetan, baliagarria izango dena gure Herriaren migrazioaren historia ezagutarazteko eta erreferentzia, gure Diasporari lotutako pertsonentzat. Aurrera goaz ere munduan sakabanatuta bizi diren euskaldunen sare birtuala sendotzeko eta Euskal Etxeekin ditugun loturak estutzeko ahaleginean.

Bestetik, laster onartzekoa den **Lau Urteko Planak** lanerako ildo eta aukera berriak zabalduko ditu, eta arreta berezia jarriko dugu Diasporako gazteengan eta estutasunean dauden pertsonengan. Egitasmo horiek zehaztu eta gauzatzeko, aktibo ezin hobe bat dugu: mundu osoan sustraituta dagoen Euskal Komunitatea, leiala eta konprometitua beti Euskal Herriarekin.

Gabon hauetan, zuotako asko –bakarrik edo familian– Euskal Herrira etorriko zarete; beste batzuek, aldiz, beren bizilekuan igaroko dituzte egun berezi hauek. Lerro hauen bidez, bat egin nahi dut zuen familia elkarretaratzeen poztasun eta zoriontasunarekin, eta **euskal gizarteak** zuen ahaleginari eginiko **aitortza** helarazi nahi dizuet, urtea behar bezala amaitu eta 2020a hobeto hasiko duzuelakoan.

Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!

Iñigo Urkullu Renteria